

ERREPORTAJEA EGUNKARIAREN ITXIERA LANGILEEN AHOTAN • GEHIGARRIA KILIBARREN
KIROLA ELGOIBARREK PEDRUSKORI IRABAZI DIO ERREGIONALEKO DERBYA

ELGOIBARRKO ASTEKARIA - 2003ko otsailaren 26c/XI. urte/436. 41c

BARRREN

ASTEKARIA



Denok gara Egunkaria

"NOLA ARIKETA FISIKOAK GORPUTZARI, HALA IRAKURKETAK ADIMENARI"
(Joseph Addison)

**Elgoibarko toki onenean,
kaiitate handieneko bizigunean,
LASTER eraikiko dugu
bilatzen duzun etxebizitza.**

MADALA 2. Fasea



Ir 943 81 21 67

URTAGO PROMOZIOAK, A.I.E.

40 URTE 40 ISTORIO



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELK ARTEA



8 1982: Gau-eskolaren azken arnasa

Aurreko astean esan bezala, 75ean Franco hil ondoren, asko aldatuko da gau-eskolako egoera. 70eko hamarkadan, Ikastolako maisu-maistrak hasiko dira gau-eskolako klaseak ematen. Gau-eskola profesionalen eskuetara pasako da. Orduko pape,retan ikusi dugunez, hilean 1.000 pezeta kobratzen zuten euskarako eskolak ematearen truke.

Euskal Herrian, 78an euskalduntze-alfabetatze mugimenduko 60 arduradun bildu ziren Altsasun. Handik lasterrera sortu zen AEK erakundea.

Elgoibarra erreparatzen badiogu, 76tik 82ra bitartean gau-eskolak aldaketa nabarmenak izan zituen. Ikus ditzagun batzuk:

- 76an, gau-eskola parrokiako lokaletatik Ikastola berrira pasa zen baldintzak asko hobetuz.
- Ikasle kopuruak izugarri egin zuen gora. 76an, adibidez, 200 ikaslelik gora zeuden.
- Ordutegiari dagokionez, orain arte eskolak gauz bakarrik baziren, 76tik aurrera eguerdian eta goizetan ere emango dira eskolak.
- Euskara erakusteko metodologia ere asko hobetuko da garai honetan.

Baina aldaketa guzti hauen ostean, gau-eskolak atek itxiko ditu behin betirako. Izan ere, 1982ko urriaren 27an egindako batzar batean, Elgoibarko Izarrak bere gau-eskola AEKren esku lagatzea erabaki zuen. Gau-eskolako atek itxi eta euskaltegietaoak zabalduko dira. Helduen euskalduntze-alfabetatzearen aro berri bat hasiko da. 82ko azaroaren II n AEK euskaltegia zabaldu zen Elgoibarren, eta 1983ko irailean, berriz, Udalak HABEk bultzatutako Udal Euskaltegia jarri zuen martxan.

Felix Etxeberria eta Imanol Larrafiaga

iritzio



Berrien mundu amaigabea

Lehenago astetik EGUNKARIAren berria airean dago eta gehienok gabilta irrati edo telebistako berriei pegaturik. Baina halako katea edo irrati emisora jarri, horrelako berriaren bertsioa entzurilikusiko duzu. Adierazgarria da egun hauetan eta urte guztian zehar komunikabideek edozein berriri ematen dion oihartzuna. Desberdintasunak ikaragarriak dira, batzuek Grammy sariak azpimarratzen dituzte, eta beste batzuek Bush eta Aznarren megabilera hori, mundua edozein indar kaltegarriengandik askatuko dutelakoan.

Orduan, zein dira beharrezkoak eta zeintzuk dira denbora-pasako berriak. Dudarik gabe, egunkari bakoitzaren zuzendari buruaren esku eta egunkari horrek jarraitzen duen politikaren ondorioz sortzen dira. Beraz, berriak ahalik eta bertsio desberdinenetan ezagutu behar ditugu, agian, gu geu gehiago nahasteko edo benetan gauzak behar diren bezala ikusarazteko. Baina lotsagarria da egunkari batzuek berri batzuei ematen dieten tratamendua, ezer ere ez gertatu ez bailitzan postura hartzen baitute.

Gainera, esaera edo esaldi batek zera dio:

"Informazioa kontrolatzen duenak, mundua kontrolatuko du"

Baina honez gero, gaur egun badakigu zeintzuk diren bakoitzaren defektuak eta ez dira hainbeste bertsio behar berria nolako den jakiteko.

Jokin Martinez

KeXak	5
MOtZ MotZ	
gehigarria	1
kiROIAk	2
aGenda	2

CCOOI ERANTZUNEZ

CCOOK joan den asteko BARRENe argitaratutako informazioa dela eta, ELA sindikatuak bere ordezkari ohiari buruz esandakoak GEZUR eta IRAIN hutsak duela nahi die jakinarazi elgoibartarrei.

Aste honetan (asteazkena, 26) Elgoibarko Udaletxean hauteskunde sindikalak egin direnez, euren kanpaina guztia barruan eta kanpoan gezur bat bestearen atzetik esatea izan da "botoak" edonola lortzeko.

BARRENe argitaratutakoari dagokionez, pertsonal-buruaren kontrako errekurtsioak eta ELAko ordezkari ohiari bere gaixotasunaren ondorioz egindako postu-aldaketak elkarrekin zerikusia dutela aipatzen da. GEZURRA. Pertsonal-buruaren kontrako errekurtsioa bertan behera uzteko erabakia langileen batzarrean hartu zen, eta ELAko ordezkariari HANDIK URTEBETERA konponbiderik gabeko hernia diskala sortu zitzaion: gaixotasuna egiaztatuta dago eta medikuen txostenak ikusi nahi dituen orori utziko zaizkio. Handik beste urtebetera (beraz, hasierako gertakarietatik bi urte igaro zirenean) lanpostu aldaketa etorri zen, bere gaixotasunarengatik ezin zuelako lehengo lan fisikoa egiten jarraitu (brigadan eta hilerrian). Langile honek postu berriaren eskakizun guztiak betetzen ditu: zuzenbideko lizentziatura eta hirugarren hizkuntz eskakizuna ditu. Titulazio horiek ere nahi duenak egiazta ditzake.

Gaia ez da hemen amaitzen, ezta gezurrak ere, baina leku-gabeziaren ondorioz ezin gara gehiago luzatu. Dena den, komunikatu honetan adierazitako guztia dokumentatuta dago, eta edozein elgoibartarrek edozein puntu egiaztatu nahi badu, ELAko lokalean (Errosario kalea, 25) informazio guztia, frogak eta egiaztatgiriak eskuratzeko eta ikusteko aukera izango du. Azkenik, gezurrezko adierazpen gehiago kaleratzen badira, ELA sindikatuak neurri legalak hartuko dituela jakinarazten du.

Deba Eskualdeko ELA Euskal Sindikatua

EGUNKARIAREKIN ELKARTASUNA

Euzko Gaztedin eta Eusko Alderdi Jeltzalean badakigu hamaika ikusteko jaiok garena guztiok, baina Euskal Herriarekiko gertatzen ari diren erasoak sinestezinak suertatzen zaizkigu.

Oraingo honetan Egunkariaren aurka jo dute eta honekin bat, kate moduan, Argia, Jakin eta Ikastolen Elkarteak, guztiak ere euskararen aldeko erakunde eta komunikabideak.

Euskara gure hizkuntza izatetik, indarkeriaren hizkuntza izatera pasa ote da?

Jadanik ez dago ezer ulertzerik, baina hemendik doakizue zuei, euskaltzale zaretenoi, gure elkartasuna eta adierazpen askatasunaren aldeko oihu sakona.

EGItik eta EAJtik eraso guzti hauek gaitzesten ditugu, Euskadiren, euskararen eta euskal kulturaren zapalkuntza bezala ulertzen ditugulako.

Elgoibarko EGI eta Elgoibarko EAJ

Urruzunoren begi ezkutua

Aurrera Euskaldunon Egunkaria



I-Irak is living a bonbardeixong II-Txapapotezko etxea.... Egunkariako kazetariak ez daki zein izenburu jarri azken kapituluari. Urtebeteko lana izan du azken boladako zoritxarrak liburu batean biltzen.

Oraindik ez daki bihar preso aurkituko duela bere burua, euskaldunen hitza bezala, zer eta euskaraz mintzatzeagatik. Hegoak ebaki dizkiote..

adierazpen askatasuna ukatuz.. isiltzeko agintzetik eskua aho parean jarri eta mintzoa galeraztera alde handia dago ordea.

Bere seme gazteena liburuko azken kapituluak idazten ari da.. "...euren bihotz garunetan dauden galipota orbanek ez dute gure euskal prentsa xurgatuko..." eta harro-harro Izenburua jarri dio aitaren liburuko azken kapituluari: *III-Alferrik dabilta, aurrera Euskaldunon Egunkaria*

Maite Uriarte

RRREN

Ba

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
e 943 74 41 12
Publizitatea:
e 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILA
Elgoibarko izarra

LAGUNTZAILA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILA Ainhoa Andonegi ZUZENDARIA Asier Orbea PUBLIPTATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILA Jaione Unanue ADMINISTRAZIOA Amaia Rodriguez GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansuategi, Edume Bilbao, Gotzon Anieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Golzon Garateren liburitik INPRINATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

EG ELGOIKALKO IZARKA
RUEIUL ELLAIII

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



411.1 kutxa
zuri asker

1 DANOBAT
LOIUNPS HEPRAMIENTA

44 GOITI
GRUPO 1:1/010.7

ESTARTA
GRUPO DANOBAT



C!3'11 11b111

♦ San Inazio kaleko bizilagun batek, **Plaza inguruan dauden taberna batzuen jarrera salatu nahi du**: "Tabernako botilak birziklatzera bota beharrean, Udaletxe atzean dauden kontenedore ondoan lagatzen dituzte, eta azkenean zabor kontenedorera joaten dira, birziklatzaileek ez baitituzte jasotzen".



• Emakume batek, **Herriko Antzokiko arduradunaren jarrera salatu nahi du**, "jendea zarataka egoten da, eta ez du horren aurka ezer egiten. The Ring pelikula ikusten ari nintzela, gazte koadrila bat zarataka ari zen. Pelikula hasi eta amaitu zen arte, ez ziren isildu eta, arduraduna ez zen agertu ere egin. 4 euro ordaindu ostean, pelikula lasai eta gustura ikustea gustatuko litzaidake, eta honelako kasuetan, ezin da pelikula lasai ikusi. Ez da lehenengo aldia, eta arduradunak ez du ezer egiten".

• Institutuko neska koadrila batek **zorionak eman nahi dizkie DBH-leko institutuko ikasleei, Areta Futbol txapelketan Gipuzkoa mailan jokatzera iritsi direlako**.

• Herritar batek **Udala txalotu nahi du, kaleak garbitzeko makina ekarri duelako**: "Lan ona egiten ari dira herriko kaleetan, eta igartzen da askoz garbiago daudela. Jarraitu horrela!"



Barrak, Birrak eta Barreak



Egunkaria

Igor Rota Egunkariako publizitate arduraduna

"150 lagun kalera jungo gera, batzuk kartzelan jarraitzen dabe eta hori ezin leike ahaztu"



*Igor Sota (30 urte)
elgoibartarrak 97tik
egiten du lan
"Euskaldunon
Egunkaria"-n.
Komertzial gisa hasi zen
eta duela hilabete
batzutatik publizitate
arduraduna da.*

Nola gogorutzen duzu Egunkaria itxi eta bertako 10 arduradun eta arduradun ohi atxilotu zituzten eguna?

Zoratzekua izan zan. Lehen eguna kritikuen izan zan. Lehen bi orduak Guardia Zibilek itxen zutenari begira pasau genitxun. Finantza arduradunak diru pixka bat atera zaban kontu guztixak blokeau aurretik. Mobilak erosi eta gauzak antolatzen hasi ginan. Azkar erreakzionatu gendun. Goizeko 12:30etan bi krisi batzorde zauden eratuta. Hurrengo egunian egunkaria kaleratzia izan zan lehen erabakia. Ez zakigun nola, zeinek ezta zer baliabidekin ere, baina lortu gendun.

Zer sentitu zenuen?

Lagun batek telefonoz kontau zidanian, lehen sentsaziva kezka izan zan, baina baitxa beldurra ere. Zuzendaritzako jendia atxilotu zabela entzun ondoren nire buruarengatik beldurra ere izan naban, nire izena Egunkariaren bigarren orrialdian agertzen baitxa publizitadiakin arduradun gixa eta beraz, diru kontuekin erlazioa.

Zerbaitetarako balioko al du Donostiako manifestazioan lortutako babesak?

Jendiak zer gertatzen ari dan ez ahazteko balio dau, notiziak hiru egun irauten baitute gehixenez titularretan. 48 ordu eskasetan milaka pertsona batziak asko lagundu eta emozionau gintxun. Orain medio guztien kolaboraziva bihar dogu. 150 lagun kalera jungo gera, batzuk kartzelan jarraitzen dabe eta hori ezin leike ahaztu.

"Gure kontra etorri dia zuzenian, hain zuzen ondo funtzionatzen hasiak ginanian"

Zein da Egunkariaren egoera orain?

Batzordeetan antolatu gera eta bakoitzak zeregin bat dauka: kanpoko medioekin harremanak, Egunero kaleratu, propaganda, Tolosan txoznak antolatu... Harpidetza kanpaina erraldoi bat martxan jartzia da helburu nagusixetako bat, proiektu berri bat aurrera atera bihar izanez gero oinarri sendo bat eukitzeko.

Espainiako Auzitegi Nazionalako Juan del Olmo epaileak aginduta Euskaldunon Egunkaria itxi eta 10 lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak otsailaren 20an, askok jakingo duzuen moduan. **BARRE**nekook Montse

EGUNKARIAREN SORRERA

Egunkaria euskalgintzatik sortutako ekimena izan zen. Euskal munduko 75 lagun ezagunek osatu zuten Egunkaria Sortzen talde eragilea 1990eko urtarrilean; Norbere izenean, eta ez inongo talderen izenean. Xede nagusia "egitasmoaren independentzia eta zabaltasuna bermatzea" zen, orduko idatzi fundazionalak jasotzen duen legez. 1989ko azaroaren lehen euskarazko egunkari bat abian jartzeko lehen bilera egin zen Donostiako Joxemiel Barandiaran lizeoan. Euskarazko egunkariaren aldeko giroa sortzea erabaki zen bileran. Horretarako jarri zen abian firma bilketa. Guztira 30.000 sinadura bildu ziren. Sinaduraren testuak zera zioen: "Euskarazko eguneroko prentsa beharrezko dugula eta zor zaigula". 89ko abenduan, Durangoko azokan bildu ziren

Eta etorkizunera begira zer?

Gauden egoeran aukera desberdinak aztertzen ari gera eta ez dogu bat ere baztertzen. Dakidana da, gauzak ondo ein biharko ditxugula eta kontu handiz berriz holakorik gerta ez dadin. Azpiegitura berri guztixa antolatzen ari gera. Gero ikusiko da, langabezira jungo baikara. 200 lagun inguru gara zuzenean afektatutakoak.

Beharrezkoa al zen Egunkaria ixtea?

Astakeri bat da edozein enpresa ixtea edozein epailek susmo bat daukalako edo bertako langile eta arduradunek indako gestiva ikertu nahi dabalako. Euskalgintza eta Euskal Herrixan kontrako beste eraso bat gehixao da. Gure kontra etorri dia zuzenian. Ondo funtzionatzen hasiak ginanian, hain zuzen ere. Hazkunde prozesu batian murgilduta eta instalazio eta jende berrixa sartu danian.

Egunkaria asentau ostian, egunerokotasuna alde batera laga eta beste gauza batzutan hasteko aukeria zakagunian ailegau da itxiera. Eurek ere bazakitzela uste dot, bestela ez da normala orain arte itxioia.

Arregi

Arregi eta Igor Sota Egunkariako langile elgoibartarrekin izan gara. Azken egun nahasi hauek nola bizi izan dituzten eta etorkizuna nola ikusten duten jakin nahi izan dugu.

euskalgintzako 50 lagun. Bertan egunkariaren ezaugarri nagusiak zehaztu ziren, gerora Egunkariaren hamaika puntu fundazionalak izan zirenak: euskaltzalea, nazionala, baterakoa, zabala, alderdiekiko eta erdarazko beste medioekiko independentea, ez instituzionaia, diru laguntzek lagundua, militantea, profesionala eta berria.

Egunkaria Sortzenen indar bilketak aurrera jarraitu zuen. Euskalgintza eta kulturagintzako erakundeez gain, alderdi politiko, erakunde sindikal, sozial eta herrikoiekin egin zituen bilerak. Herriz herri batzordeak eratu ziren: 185 batzorde, 143 herritan. Guztira 90.000 lagun inguru inplikatu zen egitasmoan eta 50 milioi pezeta jaso.

Abenduaren 6an kalean zen Egunkaria.

Nola hartu duzu kolpe hau?

Ezin dot sinistu. Bateren batek fantasmarik ikusi badeu argi laga nahiko nuke Egunkarixan kontuak publikuak eta transparentiak diala, edozeinek ikusi ditzake. Horretan kontu asko euki da, batez ere Egin-ekin gertau zana ikusitxa. Egunkarixan burua dan administrari kontseiluan esparru zabaleko euskaltzaliak daude, toki eta ideologia ezberdinetako jendia, alegixa.

Zer iruditu zaizkizu atxiloketak?

Atxilotuek komunean daken gauza bakarra euskal egunkarixan biharra ikusten zutela da eta euskaria, euskal kultura eta izaeria bultzatu nahi izana. Hori da Egunkarixan pekatu bakatra, bertako hizkuntziakin, bertako ikuspegitxik begiratura eguneroko informaziva lantzia. Jaurlaritzak ere oso zorrotz aztertzen ditxu Egunkarixan kontuak gero laguntzak emateko. Ez dot ulertzen epaile batek nola ez ditxun kontuak begiratu eta bateren bati galderaren bat egin bihar bazion, normal galdetu. Zeozer egongo balitz hala jokatuko lukete.

Egunkarixa ixtera jun dia. Zergaitxik? Euskaria, euskal izaeria eta euskal herriko ikuspegixa bultzatzen ditxun informazio itxurrixa dalako. Esango daben guztixa gizurra da, montaje bat.

Espero al zenuen horrelakorik?

Ezta pentsau ere. Gauza asko ikusi ditxugu eta ez da egunkari bat itxen daben lehen aldixa, baina halakorik ezta pentsau ere.

Zein da zure egoera animikoa?

Hasieran ezin sinistuta egon nintzan. Gero tristuria, inpotentzia eta haserria nahasixan sentitzen nitxuan. Oindiokan sentsazio hau da nagusi, egunero zerbaitx berrixa ateratzen baitxa. Inatira pegauta egoten naiz, eszedentzian nauanez, ez bainao lankidien albuana, haurrakix etxian baizik.

Larunbateko manifestazioa eta gero, esperantza gehiago al duzu?

Hunkigarrixa eta itxaropentsua izan zan. Era guztixetako jendia bildu bada, ez dakitx Euskaldunon Egunkarixa, baina herri honek atarako dau egunkarixen bat aurrera.

Montse Arregi Egunkariako kultura erredaktorea

"Hemengo ikuspegitxik eta hizkuntziakin eguneroko informaziva lantzia izan da Egunkarixan pekatu bakarra"

Montse Arregi (36 urte) Egunkariaren sorreratik, 90etik, dabil bertan lanean. Ekonomiako erredaktore moduan hasi zen eta Kulturako erredaktore izatera pasa zen ondoren. 2000. urteko maiatzetik amatasun eszedentzian dago.



Horrelako manifestaldiek zerbaiterako balio al dute?

Euskal Herritxik kanpo ez dabe balio ezertarako. Ikusi dogu ez dabela kasorik eitxen. Barrura begira, berriz, dauan indar guzti hori bideratzen asmatu bihar dogu eta zerbaitx praktikua lortu. Aukeria hor daukagu.

Zein izan daiteke irtenbidea?

Lehenik epailian autua ikusi eta aztertu biharko da. Ez dakitx aukerarik egongo dan Euskaldunon Egunkarixakin jarraitzeko edo ez. Bestalde, ahal dan neurrixan burua hotz mantendu dau jendiak eta lan praktikua eitxen ari dia.

Aurrerantzean non ikusten duzu zure burua?

Eszedentziarekin nauanez antzerako egoeran jarraitzen dot. Hortik aurrera ez dakitx. Langile batzuk oso egoera larrixan geratuko dira. Drama pertsonal asko daude eta etxe batzutan diru sarrerarik gabe geratuko dia. Hau guztixa atxilotuen egoera kontutan hartu gabe.

Jende askok hartu du parte Elgoibarren Egunkariaren itxieraren aurkako kontzentrazioetan

Egunkariaren aldeko Herri Batzordea eratu da herrian

Joan zen otsailaren 20an, ostegunean, jtxi zuten Euskaldunon Egunkaria. Albisteak lo harrapatu zuen Euskal Herria, baina berehala esnatu zen, eta elgoibartarrek ere, lehenengo momentutik eskaini zioten beren babesba Euskaldunon Egunkariai. Otsailaren 21ean, herritarren ekimenez, kontzentrazioa izan zen Plaza Handian. Larunbatean berriz; Elgoibarko Izarrak antolatuta bi autobus bete ziren Donostiako manifestaziora joateko, eta auto partikularretan ere, herritar ugari joan ziren. Honekin batera, hilaren 24a, Herri Batzarra eta Kontzentrazioa antolatu zituen Elgoibarko Izarrak. Herritar asko bildu zen Plaza Handian Egunkariaren itxieraren kontra protesta egiteko. Egunkariako hiru langile izan ziren bertan, Igor Sota publizitate arduraduna, Montse Arregi kazetari elgoibartarra eta Ainara Argoitia kazetari eibartarra. Hiruren artean egungo egoera eta hemendik aurrera egin beharrekoak azaldu zituzten. Honekin batera, bertso eta olerkiak eskaini zitzaizkion Egunkariari,



Jende asko bildu zen Egunkariaren itxieraren aurkako kontzentrazioetan.

eta kantu doinuekin amaitu zen ekitaldia. Asteazkenean, hilaren 26an bi kontzentrazio izan ziren Plaza Handian. Elgoibarko Institutuko ikasleek antolaturikoa bata, eta Euskara Kontseiluak antolaturikoa bestea. Orokorrean, elgoibartar askok hartu du parte Egunkariaren aldeko mobilizazioetan.

Herritarren laguntza

Euskaldunon Egunkaria herriak sortu zuen. Honekin aurrera jarraitu edo proiektu berri bat sortzeko, Herri Batzordeak eratzen ari dira hainbat herritan. Herritarren laguntza ezinbestekoa da, beraz, laguntzeko prest daudenak, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen eman dezakete izena.

KZ guneak ikastaro berriak antolatu ditu martxorako



Elgoibarko KZ guneak 6 ikastaro berri antolatu ditu martxorako. Interneten nabigatzen irakatsiko zaie ikasleei, besteak beste, posta elektronikoa, informazio bilaketa, txat, messenger eta saretik programak jaisten erakutsiko zaie. Egunean bi ordu eskainiko dira. Hutsetik hasten diren pertsonentzat 10 eguneko ikastaroa izango da, eta sarea apur bat ezagutzen dutenentzat 8 egunetako. Honetaz aparte, 50 urtetik gorako pertsonentzat eta baita informatikan moldatzeko arazoak dituzten pertsonentzat beste lau ikastaro antolatu dituzte.

Aurreko bi ikastaroak egin dituzten pertsonentzat, KZ guneak beste seminarioak eskaintzen ditu. Guztira 5 seminario emango

dira datorren hilabetean. Seminario hauei esker erabiltzaileek ikasitako ezagutzak praktikan jartzeko aukera izango dute.

KZ guneako erabiltzaile guztiek ESI (Europar Software Institutuko) ziurtagiria ateratzeko aukera izango dute. Honen bidez, informatika teknologietan dituzten ezagutzak baieztatzen dira. Bestalde, galdeketa gairak dituzten ikasleek IT Txartela eskuratuko dute. Txartel honek hainbat abantaila eskaintzen ditu: curriculuma hobetu, oposaketetarako puntuak eman...

Interesatuak KZ gunera jo dezakete, 9:00etatik 13:00etara, edo 16:00etatik 20:00etara bitartean.

120.000 euroko diru laguntza jasoko du Udalak San Roke auzoko eskailera mekanikoak egiteko

Gipuzkoako Foru Aldundiak 120.000 euroko diru laguntzak emango dizkio Elgoibarko Udalarari San Roke auzoko eskailera mekanikoak egiteko. Pedro Migel Urruzuno eta Bernardo Ezenarro kaleen arteko desnibela orekatzea da helburua. Obra hauek, ingurune honetan egingo diren etxebizitzekin batera egingo dira.



Lan arriskuei aurre egiteko kurtsoa jarri du martxan Debegesak

Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkarteak, lan arriskuak ebitatzeko ikaskuntza plan berri bat jarri du martxan. Osalan eta Eustat-ek aurkeztutako azken datuen arabera, lan istripuek behera egin dute Euskal Herrian, baina istripu larriak, hau da, hildakoak dituzten istripuak gehitu egin omen dira. Joan zen urteko lehenengo bederatzi hilabeteetan lan istripuetan hildako pertsona kopuruak %22,4ko igoera izan zuen, eta eraikuntzaren sektorean, gorakada %75ekoa izan zen 2001. urteko datuekin konparatuz. Egoera honen aurrean, Eusko Jaurlaritzaren eraikuntzaren sektorean ematen diren lan istripuei aurre egiteko plana bideratzen ari da, eta plan honen barnean ikaskuntzaren funtzioa ezinbestekoa denez, Debegesak istripu horiek gutxitzeko helburuarekin antolatu du ikastaroa. Aurtengo kurtso honetako berrikuntza, eraikuntza lanetan segurtasun koordintzaile izateko ikastaroa da. Kurtsoa, arkitekto eta ingeniariari zuzenduta dago.

Droga eta HIESAri buruzko dudak argitzeko zerbitzua jarriko du martxan Errotatxok



Mainer Gastesi izango da zerbitzuaren arduraduna

Datorren martxoaren 5etik aurrera, herritarrek droga eta HIESAri buruz dauzkaten zalantza guztiak argitzeko zerbitzua jarriko du martxan Errotatxok. Asteazkenetan arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara, Artetxe 28an elkarteak daukan lokalean izango dira herritarren galderak erantzuteko prest. Galderak telefonoz (943-74 24 47), edo posta elektronikoaren bitartez ere, (errotatxo@telefonica.net) egin daitezke. Honekin batera, Errotatxoko arduradunek Elkartearen logotipoa aldatzeko gogoia daukatela azaldu digute, eta lehiaketa bat jarri dute martxan. 16 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago lehiaketa, eta irabazleak 100 euroko saria jasoko du. Lanak entregatzeko epea apirilaren 1ean bukatuko da.

Txankakua Merkatari Elkateak Gabonetako zozketaren sariak banatu ditu

Joan zen otsailaren 19an, Txankakua Merkatari Elkarteak Gabonetako zozketaren sariak banatu zituen Kultur Etxean. Lau sari zituen banatzeko, baina hiru besterik ez zituen eman, hirugarren zerbaki sarituaren jabea ez baita azaldu. 28.550 zerbakia izan zen lehenengo zerbaki saritua. Mainer Lizundia izan zen irabazlea, eta 900 euroko erosketa txekoa jaso zuen. Bigarren irabazlea, 6.697 zerbakiarekin Leire Odria izan zen, eta honek, 450 euroko saria jaso zuen. Hirugarren zerbaki sarituaren jabea ez da azaldu, eta laugarren irabazlea, 26.711 zerbakiarekin Laura Garcia Jurado izan da, eta honek 150 euroko erosketa txekoa jaso zuen. Sariak Goiara dendako Ana Mochalesek banatu zituen.



Euskaldunon Egunkaria ixteak aspaldiko mobilizazio jendetsuenak eragin ditu ZERGATIK USTE DUZU MOBILIZATU DELA HAINBESTE JENDE EGUNKARIAREN ALDE?



VALENTÍN ZUBIAURRE
39 urte, errezeptionista

Gobernu Espainolak euskaldunon aurkako erasoak egin duelako. Egunkaria, Ikastolak, AEK... Euskaldunok makurtu nahi gaitu, eta horren aurrean euskaldun guztiak bildu eta batera erantzun dugu.

IMANOL CERDEIRA
37 urte, administraria

Egunkaria euskaldun guztiona zelako. Euskaldunak pertsonalki erasotutako sentitu gara. Hizkuntzak batzen gaitu. Ideologiak alde batera utzita, mota guztiak jendea bildu da euskararen alde borroka egiteko.



VIRGINIA BARRIADA
32 urte, sukaldari laguntzailea

Egunkaria benetako probarik gabeko itxi dutelako. Medio informatibo bat era horretan ixtea oso injustua izan da. Komunikabide guztiak errespetatu behar dira.

ARTURO SUEIRO
43 urte, artezlaria

Euskaldun guztiona zen egunkari bat itxi dutelako. Bazen jendea esnatzeko garaia! Ez da lehenengo eraso izan, eta ez da azkena izango, baina badirudi jendea kontzientziatu dela behingoz.



LOREA UNZUETA
43 urte, etxez-etxe laguntzailea


Euskararen kontrako erasoak izan delako. Euskal Herriarentzat oso garrantzitsua da bere hizkuntza, eta oso puntu pertsonala ukitu dute, erabat intimoa. Erantzuna erabatekoa izan da.

NIEVES LOIOLA
47 urte, administraria

Komunikabide bat itxi dutelako. Pentsamolde bakoitzak bere egunkaria izan behar du bakoitzak berea aukeratzeko. Komunikabide bat ixtea, informazio eskubidea moztea da.




Malape taberna
Orain astegunetan
egunero 7:00etan
i rekitzen dugu



© malape
Elgoibar 741945

San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43



- * IDAZMAKINEN SALMENTA
- * ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOJU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAX

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

VICENTE ETA REMEDIOS
Surya belardenda



GAIXOTASUNAK SENDATZEKO
IRTENBIDE NATURALAK

aster dator udaberria. Udaberria, odol berria!
Prestatu eta udaherriari ongi-etorria egin behar zaio,
alergia, barizeak, depresioak eta bestelako
gorabehera guztiak ebitatzeko.

Odola, gorputzaren mezulari
Odola gelditu, organismoaren zati bat elikatu gabe utzi eta
sendaezinak diren gaitzak sortu aurretik, ondorengo aholkuak
jarraitzea gomendatzen da, odolaren zirkulazioa
normalizatzeko:

* Odola garbitzeko: Galkidea (diente de leon), erromero,
alkatxofa eta ilen-kultibatu (kalendula) infusioa hartzea kome-
ni da.
Txikoroak odola garbitu eta zirkulazioa normalizatzen du.
Udaberrian, lurretik zuzenean hartu eta entsaladan jatea kome-
ni da. Astean pare bat aldiz, asun freskoak egosi, eta patatekin
jatea ere, egokia da.
Fruta eta entsalada desberdinak, limoi zukuz eta olibazko olio-
arekin (lehen presioa hotzean egindako olibazko olio) nahas-
tuta jatea komenigarria da. Barazki gordinak eta egosiak,
legunbreak, eta zereal integralak: arroz integrala, mijo, eta
kuskus-a.
Haragiaren orde, soja jatea gomendatzen da. Hestee ondo
funtzionatu dezaten, zenteno ogia, edo integrala jatea hobe da.

* Odolak ondo zirkulatzeko: Elorri-zuria (espino blanco),
Ginko Biloba edo landare naturalen nahasketa hartzea komeni
da. Soinketa egin, eta estresari aurre egiteko yoga egitea oso
egokia da, amasaren bidez erlaxatu, odola oxigenatu...egiten
baita. Bizitza erlaxatua eta sedentarioa baldin badaukazu, ibil-
tzea, korrika, igeri egitea, edo gorputza martxan jarriko duen
edozein ariketa egitea komeni da. Hemendik gure klaseetan
parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Gogamenak eta norbe-
raren gorputzak eskertuko dute.

Remedios Serena
Naturopata

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu,
deitu BARRENeKo 943 74 41 12ra

osasuna



MASAJISTAK

Victoria Iraegi

P.M. Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**
Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

(Medikuntza naturala, F de Bach. masaia. makrobiotika, yogal
San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda

(Zure osasunerako erremedio naturalak)
San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome. 10 • Tel: **943 74 37 34**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Iñaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**
Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-
19:30
Larunbatetan: 10:00-13:00

Gida honetan agertu nahi baduzu,
deitu 943 74 37 04ra

IMH Eguna ospatu zuten joan zen otsailaren 21 ean

Heziketa Zikloetako, Ingeniaritzako eta Gestio Eskolako ikasle, irakasle eta langileek IMH Eguna ospatu zuten, joan zen otsailaren 21ean. Kirol eta aisialdi ekintza desberdinetan parte hartuz, ikasle, irakasle eta langileek, jai giro bikainean pasatu zuten eguna, eta elkarren arteko jardunaldiaz gozatzeko aukera izan zuten.

Goiz partean kirola izan zen nagusi: Futbol, ping-pong, mus, xake, soka-tira eta beste hainbat



Paella lehiaketan ateratako argazkia.

kiroletako finalak jokatu ziren. Ondoren, gorputza indarberritu eta energiaz kargatzeko, paella goxoak prestatzen hasi ziren. Parte-hartzaile ugari izan zituen paella lehiaketak, eta hainbat taldek sukaldari trebeak direla erakutsi zuten. Epaimahaiak paellak behar moduan dastatu eta erabakia eman ondoren, anaia arteko bazkariarekin jarraitu zuen egunak. Bazkalostean, musikak hartu zuen protagonismoa, eta umorez beteriko dantzaldiarekin amaitu zen eguna.



Melani Lozano eta Estibaliz Moreno Betizu programako kasting-eanean izan ziren

Melani Lozanok 12 urte ditu, eta Estibaliz Morenok 14. Txiki-txikitatik daukate kanturako zaletasuna, eta Betizu programako kasting-eanean parte hartzea erabaki zuten. Melanik kontatu digunez, irakasle batek gomendatuta eman zuen kasting-erako izena. Estibalizen kasua, ordea, desberdina izan zen. Berak kontatu digunez, "Elgoibarren Betizu karaokea izan zenean abestu egin nuen, eta ETBtik jaso nuen kasting-era joateko deia". Proba desberdinak egin behar izan zituzten: abestu, dantza egin, eta elkarrizketa bat ere pasatu behar izan zuten. Talde bakoitzean 20 lagun zeuden. Melani bere taldeko bederatzien onenen artean gelditu zen, eta Estibaliz lau onenen artean. Esan digutenez, jende askok hartu zuen parte, hautatua izatea oso zaila zen, baina esperientzia oso polita izan dela gaineratu dute biek, eta datorren urtean ere, aukera izanez gero, berriz joango direla aipatu digute.

Elgoibarko Institutuko ikasleek Barren bisitatu zuten

Elgoibarko Institutuko Kazetaritza tailerreko ikasleak, Barren-en izan ziren joan zen otsailaren 21ean. Gure aldizkariaren funtzionamendua ezagutzeko asmoz etorri ziren, eta gure zuzendariak eman zizkien azalpen guztiak. Ondoren, hainbat galdera erantzun genituen, beraien zalantzak argitzeko, eta astero-astero Barren nola egiten den kontatu genien. Gure lana asko gustatu zitzaion, eta batzuk kazetari izateko asmoa zeukatela esan ziguten.



BaRRRen

Garagartza auzoko errotonda egiteko obrak lau hilabetetan bukatuko dituzte

Garagartzatik Azpilgoeta eta Mendarozabal auzoetarako sarbidea hobetu nahi da

Greyhound enpresaren eskutik, joan zen otsailaren 12an hasi ziren errotonda berria egiteko obrak, eta printzipioz, lau hilabetetan amaitzeko asmoa daukate. Is-tripu asko gertatzen ziren leku honetan, eta aspalditik zegoen obra egiteko beharra. Gainera, Mendaroko ospitalea martxan jarri zutenetik, trafikoa asko areagotu da ingurunean, eta autoak abiadura handian ibiltzen direla kontuan izanik hartu zuten obrak egiteko erabakia.

Errotonda berria, oraingoaren lekuan eraikiko dute, zaharra ordezkatuz. Helburua, N-634 errepiderako sarbidea hobetzea da. 46 metrotako diametroa izango du errotonda berriak, eta errepideak 8,50 metro neurtuko ditu. Errotonda berria egiteko obrak 755.178,43 euroko aurrekontua dauka.

Beste obra batzuk

Mendaro obretan dagoen herria da. Errotonda berriko obrak gain, Garagartza



auzoko ubideak hobetzeko obrak egiten ari dira. Bestalde, Azpiazu lantegi zaharra zegoen tokian, 12 etxebizitza berri eraikiko dituzte, eta era berean, Jose Maria Linazasororen irin fabrika zaharra botatzen ari dira, 76 etxebizitza egiteko. Honekin batera, Mendarozabal eta Plaza auzoetako industrigune berrietako obrak ere, martxan dira. Azkenik, Garagartza auzoko Agustina mojen komentu zaharra zegoen tokian, Gazte Lekua eraikiko dute.

Iosu Arriola, euskal internauten aitzindarietako bat hil zen joan zen otsailaren 13an



Iosu Arriola

Euskal Herrian sarea, oraindik lau zororen kontua zenean, Iosu Arriola mendarotarra interneten euskara agerrarazten saiatu zeri. Euskal bilatzaileen lehen urratsak eman zituen, eta Euskonet.net gunearen sortzaileetako bat izan zen. Honekin batera, "euskal letra" izeneko letra tipoa sortu eta doan banatu zuen. Orain dela hamabi urtez geroztik, Gipuzkoako Foru Aldundian lan egiten zuen, Katastro Zerbitzuan hain zuzen ere. Iosu Arriolak bere ahalmen eta jakinduria guztia jarri zuen, Gipuzkoako Katastro digitala sortzeko. Azkenaldian Donostian bizi zen mendarotar honek, jaiotzetik zeukan bihotzeko gaitza, eta joan zen otsailaren 12an, bihotzak bere lanari utzi zion. Euskalgintzaren munduan oso maitatua zen, eta mendaron ere, ez dute erraz ahaztuko Iosu Arriola.

Bihar, Inauteriak ospatuko dira

Mendaroko Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu inauterietarako. Patxin eta Potxin pailazoan emanaldia izango da. Arratsaldeko 17:00etan hasita, barre egiteko aukera bikaina izango dute Gofiati frontoira hurbiltzen diren guztiek. Pailazoan emanaldiaren ostean, txokolatada izango da. Azkenik, barre nahi-koa egin, eta sabela bete ondoren, musikaz gozatu eta dantza egiteko aukera izango dute, 18:30etatik aurrera Goñati frontoia diskoteka bihurtuko da-eta.

Martxoaren 13an estresari buruzko hitzaldia

Karmele Benito Del Valle, medikuntzan lizentziatua, eta Psikoterapian, Homeopatian eta Medikuntza Familiarrean espezializatua denak, hitzaldia eskainiko du. Gomendagarria al da iratzargailua goizetan esnatzeko? Zer da estresa? Zergatik? Nola egin aurre?, eta beste hainbat galderari erantzuna ematen saiatuko da. Hitzaldi honen helburua estresa zer den ezagutzeko da, norbanakoa-engan nola sortzen den, eta zer nolako eragina duen harremanetan eta osasunean. Hitzaldiak bi zati izango ditu: lehenengo zatian diapositiba eta gardenki bidez, hizlariak gaia azalduko du, eta bigarren zatian eztabaida-elkarrizketa bati bide emango zaio, entzuleek ere beren galderak egin eta iritziak emateko aukera izan dezaten. Hitzaldia datorren martxoaren 13an izango da, arratsaldeko 15:00etan Udaletxeko Otaerre Aretoan.

Sasikopotzu eguna

Ohitura zaharrak berreskuratu nahian "In leike" euskara taldeak Sasikopotzu eguna antolatu du. Bihar, Martxoak 1, larunbata, arratsaldeko 17:30etatik aurrera, Mendaroko trikitilari eta bertsolarien saioa ikusi eta entzun, eta sagardoa, saihetsak, txorizoa,... dastatzeko aukera izango dute, Santakutzeko parkera gerturatzeko diren guztiek. Ihauteriak direnez, mendarotar guztiak baserriarrez jantzita joan beharko dute.

" KilisaRRen

Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

gskulan eta plintrum tall mendarotarren

Datorren martxoaren 4 eta 6an hasi Ko dira ikastar(

Mendaroko Udalak eskulan eta marrazki eta pintura tailerrak antolatzen ditu laguntzak ematen ditu. Duela bi urte pasa hasi ziren tailer hauek eskaintzen, eta hasiera batean jende gutxi animatu zen arren, poliki-poliki, handituz doa tailer hauetako partaidetza. Aurtengoan gainera, tailer hauetan eginiko lanekin erakusketa bat antolatu dute Mendaroko Udaletxean. Otsailaren 14an hasita, bi asteburutan egon dira lan hauek ikusgai, eta


herriar ugari pasatu dira erakusketatik. Datorren martxoaren 4an irekiko dira kurtso berrirako matrikulak, beraz, interesatuak izena ematea besterik ez dute egin behar. Garbifie Imaz donostiarra da, eskulan tailerreko irakaslea, eta Aitor Etxeberria mendarotarrak, marrazki eta pintura tailerra erakusten du. Gaurkoan irakasleekin eta eskulan tailerreko ikasle batekin hitz egin dugu, eta gauza interesgarri ugari kontatu dizkigute.



MILA FULGENCIO

"Lagunak egiteko herriak eskaintako ekintzetan parte hartu behar da"

S eskulan tailerraren barnean, dekorazio ikastaroa eskaintzen da, batez ere, 12 lagun daude, eta horietako bat da Mila Fulgencio. Mendaro herri txikia izan arren, azken urteotan kanpoko jende ugari etorri da bertara bizitzera, eta Milaren kasua ere hauxe da. Duela hiru urte iritsi zen Mendarora, eta bi urte eta erdi daramatza eskulan tailerrean. Berak kontatu digunez, hasieran ez zuen inor ezagutzen, eta lagunak egiteko oso garrantzitsua da herriak eskaintzen



dituen ekintzetan parte hartzea: "Eskulanak betidanik gustatu izan zaizkit, baina batez ere, jendea ezagutu eta lagunak egitea zen nire nahia. Kanpotik etortzen diren guztiak animatuko nituzke parte hartzera".

Lan politak egin ditu, eta bere etxea dekoratu edo opariak egiteko erabili ditu: "Nire etxean dagoeneko ez daukat ezer gehiago jartzeko lekurik. Orain jendeak eskatzen dizkidan gauza batzuk egiten ari naiz, eta zenbait opari ere egin izan ditut". Hala ere, berak eginiko opariak, dendan erositako beste ez direla

preziazten azaldu digu: "Lan handia egin arren, eta materialak asko ordaindu arren, dendan erositako opariak gehiago preziazten ditu jendeak. Hala ere, enkargu batzuk baditut, eta nik oso gustura egiten ditut".

Erakusketa izugarri gustatu zaio, eta jendea eskulan tailerrean parte hartzera animatuko luke: "Oso polita izan da, eta herriarrei asko gustatu zaie. Guk oso pozik erakutsi ditugu gure lanak, eta edonor animatuko nuke tailer honetan parte hartzera".



Mak ku berriak

"Etxeko elementuak birziklatzen ditugu gehienbat"



Garbiñe Imaz donostiarrak ematen du eskulan tailerra. Mendaron bizi da, eta etxeo erosi zuenean, opur bat dekoratu eta bere gustura lartzeko asmoz hasi zen dekorazio ikastaroak egiten. Gero titulua aterto, eta klaseak ematen hasi zen. Hobby bat lanbide bilakatu du. Oraindik ikasten dihardu, modan dauden materiolak kontuan eduki behar baitira.

Zer eskulan egiten dituzue?

Jendeak etxean dituen trastu zaharrak ekarri, eta konpondu egiten ditu. Errebisteroak, pertxeroak, bandejak...

Zein material lantzen dituzue?

Beira pintura, egurra, eztainua, marmolina... edozein materialek balio du eskulanak egiteko, baina egokiena egurra da. Gutxien uste duzuna ere, pintura eta berniz apur batekin oso polita gelditu daiteke.

Nondik lortzen duzue materiala?

Udalak emandako dirulaguntzekin oinarritzko materiala erosten dugu. Gainontzekoa norberak ekartzen du. Egurra oso garestia da, eta azokak aprobetxatzen ditugu erosteko.

Zer da gehien kostatzen zaiena?

Gutxien gustatzen zaiena, lijatu eta ikusten ez diren aldeak marraztea da. Materialak ondo gelditzeko askotan lijatu behar izaten dira, eta hori asko kostatzen zaie.

Nolako harrera izan du erakusketak?

Oso ona. Jende ugari ibili da, eta gainera gustatu egin zaie. Ikasleek hasieran ez zuten nahi beren lanak erakusketan jartzea, baina azkenean oso gustura gelditu dira.

Artista izan behar al da tailer honetan parte hartzeko?

Ez. Edonork har dezake parte. Zerbait gaizki egin arren, berriz lijatu eta margotu daiteke, ez da dena lehenengoan ondo egin behar.

AITOR ETXEBERRIA

"Norberak bere estiloa edukitzea da garrantzitsuena"

Aitor Etxeberria mendarotarrak betidanik izan du pinturarako zaletasuna, eta orain, berak dakiena bere ikasleei erakusten saiatzen da. Zortzi ikasle ditu guzfitira, eta asteen bi orduko ikastaroa eskaintzen du; hala ere, norbaitek denbora gehiago behar badu, bere kabuz joan daiteke lanak bukatzera.



Nolako harrera dauka marrazki eta pintura tailerrok?

Bi urte pasa izango dira dagoeneko, tailerra ematen hasi ginenetik. Zortzi lagun inguru gaude, ez da asko, baina daudenak oso gustura etortzen dira, eta hori da garrantzitsuena.

Zer erakusten diezu ikasleei?

Dakidana erakusten saiatzen naiz. Batzuk besteak baino laguntza gehiago behar dute. Lehenagotik marrazten dutenek, beren estiloa markatuta daukate, eta ni ezin naiz beren lanean gehiegi sartu. Besteei erakusten saiatzen naiz, eta askok nire estiloan margotzen dutela konturatu naiz, eta hori ere ez da egokia. Estilo propioa izatea da garrantzitsuena. Koloreak landu eta detaileetan fijatzen erakusten saiatzen naiz.

Zer behar da tailer honetan parte hartzeko?


Marrazten dakien jendea etortzen da, baina badira marrazteko ideiarik ez daukatenak ere. Kanean jendeak lotsa daukala esaten dit, baina denak animatuko nituzke.

Zer da zailena?

Hiru dimentsiotako elementuak marraztea kostatzen zaie gehien. Bolumena ematea zaila da. Argiekin eta koloreekin jolastu behar da. Askok eskema fotografikoarekin etortzen dira, eta hori aldatu egin behar da. Pintura eta argazkilaritza bi gauza desberdin dira.

Zein material lantzen duzue?

Oleoa, batez ere, hau da, pintura olioarekin nahastuta. Gaizki egin arren, espatula batekin garbitu, eta lehortzen denean gainetik berriz margotu daiteke.



OHARRA

Mendaroko erretratu zaharrak behar ditugu. Mesedez deitu 943 74 41 12 telefonora eta gu joango gara argazkien bila. Eskerrik asko.



1...

ilabete honetako erretratu zaharra **Libe Iriondo Mugerzak** laga digu. 1953. urteko Santa Ana jaietan ateratako erretratua dugu hau. Gogora dezagun zein diren erretratuan azaltzen den neska koadrila honetako partaideak: Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: **Maria Luisa Bueno, Lurdes Arrillaga, Anjelita Zabala, Blankita Ansola, Milagros Egaña** eta **Libe Iriondo**. Beheko ilaran: **Ana Mari Epelde** eta **Beatriz Clerige**.

Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ
28 Zabaleta	Zabaleta
1 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
2 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
3 Ibañez	Ibañez
4 Bidasolo	Bidasolo
5 Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
6 Ibañez	Ibañez
7 Yudego	Yudego

FARMAZIAK
 ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38
 FERNANDEZ,
 Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42
 ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA
 2 **igandea** Eizagirre

Eusko Tren

DONOSTIA-BILBO

Egunero
 Donostia AmARA 5.45 06.45... 20.45
 Elgoibar 07.02 08.02... 22.02
 • jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

BILBO-DONOSTIA

Egunero
 Bilbo 06.00 7.00... 20.00
 Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
 jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

EuskoTren

KUTOBLSkk

MENDARO-ELGOIBAR

Egunero
 Mendaro 07.50 08.50... 21.50

ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan
 Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan

Elgoibar '08.25 09.25 10.25... 21.25

LARUNBAT GAUA

PES.AUTOBUSAK

EIBAR-ONDARROA

Eibar	00.30	02.30	04.30	06.30
Elgoibar	00.40	02.40	04.40	06.40
Deba	00.50	02.50	04.50	06.60
Mutriku	00.55	02.55	04.55	06.55
Ondarroa	01.05	03.05	05.05	07.05

ONDARROA-EIBAR

Ondarroa	23.30	01.30	03.30	05.30
Mutriku	23.40	01.40	03.40	05.40
Deba	23.45	01.45	03.45	05.45
Elgoibar	23.55	01.55	03.55	05.55
Eibar	(XIO5)	02.05	04.05	06.05

EIBAR-MUTRIKU

Eibar	01.00	02.30	04.30	06.00
Elgoibar	01.10	02.40	04.40	06.10
Deba	01.20	02.50	04.50	06.20
Mutriku	01.25	02.55	04.55	06.25

MUTRIKU-ED3AR

Mutriku	00.00	01.30	03.30	05.30
Deba	00.05	01.35	03.35	05.35
Elgoibar	00.15	01.45	03.45	05.45
Eibar	00.25	01.55	03.55	05.55

EIBAR-AZPEITIA

Eibar	01.30	03.30	05.30
Elgoibar	01.40	03.40	05.40
Azkoitia	01.50	03.50	05.50
Azpeitia	01.55	03.55	05.55

AZPEITIA-EIBAR

Azpeitia	00.30	02.30	04.30
Azkoitia	00.35	02.35	04.35
Elgoibar	00.45	02.45	04.45
Eibar	00.55	02.55	04.55

Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora. Tel. 902 101 210.

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
0 Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEA

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I M H	943 74 41 32

Instituta

Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar I kastetxea	943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

Egunkaria behar dugu

Euskaldunon Egunkaria itxi dutela eta, agiri hau sinatzen dugun euskara elkarte eta herri aldizkariak honakoa adierazi nahi dugu:

- Euskaldunon Egunkaria itxi izana euskararen, euskal prentsaren eta adierazpen askatasunaren aurkako eraso da.
 - Dei egin nahi diegu euskalgintzari eta euskal gizarte osoari eraso larri hau salatzeri.
 - Euskararen normalizazioaren eta euskal prentsaren alde lanean jarraitzeko konpromisoari tinko eutsiko diegu.
 - Euskal Herriak euskarazko egunkaria behar du, ezinbesteko tresna baita gure hizkuntzaren normalizaziorako.
- Euskaldunon Egunkariako langileek euskarazko egunkaria kaleratzen jarraitzeko asmoa dute. Beraz, euskal herri-tar guztien laguntza beharko dute. Ildo horretatik, guk ere laguntza eskaini eta konpromiso irmoa adierazi nahi diegu, euskarak egunero eta Euskal Herri osoan ahotsa izan dezan.

Manifestuari atxikimendua adierazi dloten elkarte eta komunikabideak:

- Irutxulo (Donostia)
- Hitzaro (Ordizia)
- ..Eta Kitto! Euskara Elkarte eta Astekaria (Eibar)
- Lagatzu Euskara Elkarte (Zamudio)
- Aikor Aldizkaria (Txorierri)
- Anboto Durangaldeko Astekaria (Durangaldea)
- Arrikikili Larrabetzuko Euskara Elkarte (Larrabetzu)
- Tipi-Ttapa aldizkari eta telebistako langileak (Bera)
- Irun Iruten Euskara Elkarte (Irun)
- Berton aldizkaria (Mahatserría)
- Txatxilipurdi Euskara Elkarte (Arrasate)
- Karkara Euskara Elkarte (Orío)
- Orratz! Kultur Elkarte (Lezo)
- UK Uribe Kostako Aldizkaria (Getxo)
- Bizarra Lepoan Euskara Elkarte (Getxo)
- Euskarabila Euskara Elkarte (Basauri)
- Loramendi Euskara elkarte (Aretxabaleta)
- Danbolin Zulo Elkarte (Zestoa)
- Goierriarrak Kultur Elkarte (Ordizia)
- Asapala Kultur Elkarte (Mahatserría)
- Dobera Euskara Elkarte (Hernani)

- Lau Haizetara Euskaldunon Elkarte eta Aldizkaria (Errenteria-Orereta)
- Berbaizu Euskara Elkarte eta Prest aldizkaria (Deustu)
- Pil- Pilean Euskara Elkarte eta Aldizkaria (Soraluze)
- Jardun Euskara Elkarte (Bergara)
- Goiena Komunikazio Zerbitzuak (Debagoiena)
- Karrikaluz Euskara Elkarte (Atarrabia)
- Txaparro Kultur Elkarte eta Txaparro aldizkaria (Zarautz)
- Elgoibarko tzarra Euskara Elkarte eta Barren Astekaria (Elgoibar)
- Euskal Birusa Euskara Elkarte eta Drogeteniturrri Aldizkaria (Ermua)
- Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarte (Donostia)
- Manuel Larramendi Kultur Bazkuna eta Aiurri Aldizkaria (Andoain)
- Maxixatzen Euskara Elkarte eta Aldizkaria (Azkoitia)
- Arrasate Euskaldun Dezagun-AED elkarte (Arrasate)
- Berbaro Euskara Elkarte (Durango)
- Uztartzen Euskara Elkarte eta Uztarría Aldizkaria (Azpeitia)
- Noaua! Euskara Elkarte eta Aldizkaria (Usurbil)
- GEU elkarte eta Aldizkaria (Gasteiz)
- Arnasa Euskara Elkarte eta Branka Pasaia herri aldizkaria (Pasaia)
- Bierrik elkarte, Guaixe eta Oixe aldizkariak, eta Beleixe irratia (Sakana)
- Gurien Bai Euskara Elkarte (Iurreta)
- Topagunea Euskara Elkarte Federazioa

E unkarria aurrera

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun
(dagoeneko harpideduna bazara, ez bete)

943 30 35 55
deltu
943 30 35 54

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide honetara:

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

Euskarak behar zaitu

Egunero

Mozorro lehiaketa eta Atxutxikaraokea izango dira inauterietako ekintza nagusiak zapatuan, martxoaren lean

Mozorrorik onenak 150 euro jasoko ditu eta 75 euro koreografiarik onenak

Beste urte batzutan baino beranduago bada ere Inauteriak gainean dira jadanik. Eguen gizen eta barixaku argalaren ostean, bihar zapatu erregularra, mozorrotzeko lehen eguna izango da. Atxutxiamaika Taldeak urtero antolatzen duen karaokearekin hasiko da inauterietako giroa berotzen. Gaztetxoek mozorroek eskaintzen duten babesa izango dute Plaza Handiko taula gainera igo eta lotsarik gabe abesteko. Mausitxaren kalejirak alaituko ditu herriko kaleak

19:00etatik aurrera eta gauean, berriz, Iratxo taldearen dantzaldia izango Plaza Handian 22:00etan. Gaberdian hasiko da



Gurutze Gorriko Gazteek antolatutako mozorro lehiaketa. Mozorrorik onenak 150 euroko saria jasoko du eta taldekako

mozorrorik onenak 200 euro. Koreografia onenak ere 75 euroko ordainsaria izango du. Apuntatu nahi dutenek badute aukerarik oraindik. Martxoaren lean, zapatuan, izango da izena emateko azken eguna Gurutze Gorrian. Informazio gehiago 943 74 21 58 telefonoan.

Bestalde, asteartean, martxoaren 4an, Potxin eta Patxin pailazoek egingo diete harrera Plaza Handian bilduko diren ikasle mozorrotu guztiei. Arratsaldeko 17:00etan izango da eta ordubete beranduago, suzko zezen ikusgarria izango da bertan. Ondoren Mauxitxa Txarangaren kalejira hasiko da.

"Se busca impotente para convivir antzezlan izango da ikusgai otsailaren 7an Herriko Antzokian

Carmen Conesa aktore ezaguna da protagonista



Gaby Hauptmann idazlearen "Se busca impotente para convivir" elaberrian oinarritutako izen bereko antzezlan eskainiko du Glu Glu Producciones taldeak otsailaren 7an, barixakuan, Herriko Antzokian. Carmen Conesa aktore ezaguna da protagonista nagusia, "Chicas de hoy en dia" telesailen lortu zuen ospea, baina harrezkero film, telesail eta telebista aurkezle lanetan ere aritu da. Elgoibarren beste 7 aktoreen laguntza izango du. Carmen 40 urte bete berri dituen emakumea erakargarria da, enpresa zuzendaria eta diru asko irabazten duena. Lagun asko ditu eta gizonak erraz konkistatzen ditu, errazegi, agian.

Hauxe da bere buruari egiten dion galdera: zergatik dira gizonak horren errazak? Zergatik pentsatzen dute emakumeek burmuinarekin eta gizonaekin hor behean dutenarekin? Galdera hauei erantzunik ez aurkitu izanak bere laranja erdia aurkitzea eragotzi dio. Sexuan bakarrik pentsatzen ez duen gizona lerdan eta argia bilatu nahi du Carmenek. Hau lortze bidean iragarki bat jarriko du egunkari batean: "Emakume erakargarri eta arrakastatsuak elkarrekin une atseginak, abenturak eta proiektuak pasa eta bizitzeko ideiak argi dituen gizona bilatzen du. Ezinbestekoa: inteligentzia eta inpotentzia".

200 atletek hartu zuten parte Eskolarteko Euskadiko Kros Txapelketan Mintxetan

Aitor Arrillaga elgoibartarrak 5. postuan amaitu zuen kadete mailan

ipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroako hainbat herritatik etorritako 200 atletek hartu zuten parte Eskolarteko Euskadiko Kros Txapelketan pasa den domekan (otsailaren 22an) Mintxetan. Tartean izan zen elgoibartarrak ere, Mintxeta Atletismo Taldeko hiru korrikalari, hain zuzen ere. Elgoibartarrak onena Aitor Arrillaga izan zen. Kadete mutilen mailako kros lasterketan hartu zuen parte Aitorrek eta bosgarren postuan sailkatu zen (21'45"). Azken metroak arte brontzezko domina lortzeko borrokan sartuta egon zen, baina tamalez ez zuen lortu. 26 lasterkerik hartu zuten irteera eta Iban Fernandez arabarra izan zen irabazlea. Arkaitz Azkoitiak, berriz, infantil mutilen mailako lasterketan hartu zuen parte eta 14. postuan sartu zen helmugan. 4.620 metroko ibilbidea amaitzeko 17'58" denbora behar izan zuen. Eriaute Insausti (16'26") gipuzkoarrak irabazi zuen 80 atletek parte hartu zuten lasterketa. Kadete nesken mailako lasterketan Maider Oñederra izan zen Mintxeta taldeko ordezkaria. Maiderrek 23. postuan amaitu zuen lasterketa 21'26" denborarekin. Cristina Rojas, Lekeitioko Tximista taldeko korrikalariak irabazi zuen proba.



Kadete mailan Lekeitioko Tximista taldeko neska izan ziren onenak.

Aitor Arrillaga izan zen elgoibartarrak onena. Bosgarren postuan amaitu zuen kadete mailan.



Elgoibarrek 1 - 0 irabazi zion Pedruskori erregional mailako derbyan

Lehen Erregional mailako derbya jokatu zuten Pedruskok eta Elgoibarrek pasa den domekan, otsailaren 23an, Mintxetako futbol zelaian. Bi taldeak herritarrak izanik normalean baino jende gehiago ikusi zen armailetan. Lehen minutuan sartu zuen gola Fran Huidrobo Elgoibar taldeko jokalariek eta emaitza ez zen aldatu amaierara arte. Partidua ez zen oso erakargarria izan, baina derby guztiak izaten duten tentsioa izan zuen. Emaitza honek sailkapeneko azken



postuetatik ihes egiteko balioko die Fernando Loiolak entrenatutako elgoibartarrei. Liga txapelketako 21 partidu jokatu ostean 13.

postuan dago Elgoibar. 16 talde dira eta azken hirurek galtzen dute maila. Bost partidu irabazi, lau berdindu eta 12 galdu dituzte. 33 gol sartu dituzte eta 50 jaso. Pedrusko taldearen egoera askoz hobea da. Une honetan 6. postuan daude, 10 partidu irabazi, bi berdindu eta 9 galdu ostean. Aitor Eizagirrek entrenatutako mutilek 46 gol sartu eta 27 jaso dituzte. Laugarren sailkatuak Pedruskok baino puntu bat gehiago du, baina 3. sailkatuak 11 puntuko aldea ateratzen dio, liga bukatzeko 9 partidu falta direnean.

50 lagun joan ziren eskiatzera Morkaikorekin

Hurrengo irteera Mugarra inguruan trabesia izango da martxoaren 22an




Morkaiko Mendizale Elkartek Bagneres de Luchonera (Frantziar pirineoak) eskiatzera antolatu zuen irteerak erantzun ezinhobea izan zuen herritarrengan hasieratik. Hiru aste lehenago itxi zutela izena emateko epea esan digute Morkaikoko arduradunek. Guztira 50 lagun joan dira eta balantzca oso positibo da. "Gehienek eski alpinoa zein snow-a egin zuten zapatuan, baina izan zen fondoko eskia aukeratu zuenik ere". Pistak ilxi eta gero Luchonen dauden terma ezagunetara joan zen lagun talde bat eta besteek herrian ibilaldia eta poteotxoa

egiteko aprobetxatu zuten. "Dena dela, denon artean nagusitzen zen sentimendu orokorra Egunkariaren alde Donostian egin zen manifestaldian ezin egonak sortzen zigun pena zen" adierazi digute. Igandean ere eguraldi eguzkitsua izan zuten eta elgoibartarrek pistetan gozaten jarraitu zuten. Herria oso lasaia eta polita dela gaineratu digute. Ba omen dago Pikabea izeneko jabe euskaldunak dituen jatetxe bat ere. **Bertan afaldu zuten askok.** Morkaikoren hurrengo irteera Mugarra inguruan, Mañaritik Dimara, egingo den trabesia izango da martxoaren 22an.

Espainiako Judo Txapelketan hartuko du parte Zuriñe Polok

Zuriñe Polo elgoibartarrak Euskadiko Judo Txapelketa irabazi zuen duela 3 aste Errenterian. Lorpen honi esker eta egungo Euskadiko eta Espainiako Judo Txapelduna 23 urtez azpiko mailara igo dela aprobetxatuz, 20 urtez azpiko Espainiako Judo Txapelketan hartuko du parte, 16 urte besterik ez dituen arren. Alcorconen (Madril) jokatu da txapelketa asteburu honetan eta 48 kiloz azpiko kategorian lehiatuko da Zuriñe. Aurrez hiru aldiz hartu du parte Espainiako Txapelketaren baten eta 5. postua izan da lortu duen onena. Euskadiko txapeldun, berriz, behin baino gehiagotan izan da eta behin Espainiako Lutxa Libre txapeldun.



EMAITZAK

Futbola

Elgoibar 2 — Zestoa 1 (Kad.)
Elgoibar 3 — Santo Tomas Lizeoa 1 (Inf.)
Elgoibar 1 — Pedrusko 0 (1. erreg.)
Hondarribia 1 — **Haundi 0 (Pref.)**
Eibartarrak 0 — Elgoibar 7 (Jub.)
Urki 0 — Elgoibar 4 (Neskak)

Esku pilota

Lagunak 22 — Lazkao 20 (Kad.)
Lagunak 10 — Lazkao 22 (Kad.)
Lagunak 22 — Bergara 6 (Jub.)
Lagunak 22 — Euskal Jolas 11 (Nag.)
Lagunak 22 — Batzokiko 9 (Nag.)

Eskubaloia

Tecnomeca Elg. 26 — Aiala Zarautz 29 (Kad. mut.)
Pneumax Elg. 27 - Aiala Zarautz 24 (Jub. mut.)
Urduliz 24 — Tecnifuelle Elg. 15 (Sen. mut.)
Arrate 19 — Gaur Elg. 17 (Jub. mut.)

Areto Futbola

Carnicerias Saenz 5- S. Pedro Kenci 5 (Nazional A)
Cash Converters 5 — Lanbroa 4 (1. maila)
Aloña Mendi 1 — Lojantzi 3 (Jub.)

Idarraga kafeak 6. saria

HAUNDIko jokalaria erregularrena 02/03

JOKALARIA	PUNTUAK
1- Elkoro	44
2- I. Gurrutxaga	35
3- Arenas	27
4- Gotzon	22
5- Jakes	21
6- Igartua	19
7- Caro	19
8- Loren	17
9- Navarrete	11
10- Bravo	10

AGENDA

Areto Futbola, Kiroldegian

Zapatua, 1

12:30 Lojantzi — Laskorain (Jub.)

16:00 Kenci Elg. — Soloarte (Nazional A)

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 1

16:30 Elgoibar—Aloña Mendi (Pref.)

18:15 Elgoibar — Antoniano (Jub.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Barizakua, 28

19:00 Tecnomeca Elg. — Bidasoa (Kad. mut.)

20:30 Pneumax Elg. — Bidasoa (Jub. mut.)

Zapatua, 1

9:30 Gaur Elg. — Bergara (Jub. mut.)

11:00 Tecnifuelle Elg. — El Pilar (Sen. mut.)

17:15 Pagoaga Elg. — Zuazo (Kad. nesk.)

18:45 Cometel — Zuazo (Jub. nesk.)

Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Debabarreneko enpresak **2 ko-**
mertzial behar ditu.
Erref. 95954/1

Durangoaldeko enpresak **irakaslea**
behar du. **Erref. 96569/2**

Durangoaldeko enpresak **2 komer-**
tzial behar ditu. **Erref. 96752/2**

Gipuzkoako enpresak **espezialista**
behar du. **Erref. 96676/2**

Durangoaldeko aldi baterako en-
presak **elektrikaria** behar du.
Erref. 95422/4

Zumaiaiko enpresak **analista pro-**
gramatzailea behar du.
Erref. 96351/3

Eibarko enpresak **promotorea** be-
har du. **Erref. 96936/3**

Elgoibarko enpresak **promotorea**-
behar du. **Erref. 96452/3**

Durangoaldeko enpresak **obrara-**
ko nagusia behar du.
Erref. 96790/1

Debabarreneko enpresak **komer-**
tziala behar du. **Erref. 97035/3**

Durangoaldeko enpresak **elekti-**
karia behar du. **Erref. 97012/1**

Durangoaldeko aldi baterako en-
presak **kamareroa** behar du.
Erref. 96956/2

Durangoaldeko enpresak **ajusta-**
dorea behar du. **Erref. 96875/3**

Durangoaldeko enpresak **tornero**
eta frasadoreak behar ditu.
Erref. 96872/3

Hautagai moduan sartzea eskatu
nahi baduzu **901222901**
telefonora deitu edo "Langai"-k
Elgoibarren dituen zentru
laguntzaile hauek batera deitu:
Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi)
943 74 80 19 edo IMH (Nora
Raman) **943 74 41 32** telefonora.

Lana

ESKAERA

◆ Tituludun neska, nagusiak or-
duka zaintzeko prest.
tr **686 07 85 96**

◆ Esperientziadun neska urritasu-
nak dituzten haurrak zaintzeko
prest. u- **686 07 85 96**

◆ Neska umeak edo nagusiak
zaindu, zein etxeko lanak egite-
ko prest. Arratsaldez.
tr **660 19 27 82**

• Iturginak bere burua eskain-
tzen du Elgoibar, Eibar edo in-
gurueta lan egiteko. Ahal bada
kontratuarekin. Gidabaimena eta
8 urteko esperientzia.
cr **645 70 97 89/615 72 54 19**

◆ Neska arratsaldez umeak edo
nagusiak zaintzeko prest.
tr **629 98 81 74**

◆ Emakumea, asteazkenetan
garbiketa lanak egiteko prest.
cr **943 74 22 01 (Araceli)**

ESKAINIA

◆ Kamareroa behar da.
ir **943 74 42 65/943 74 01 93**

◆ Umeak zaintzeko pertsona be-
har da. **2 676 15 46 00**

Emakumea behar da etxeko
lanak egin eta umeak zaintzeko.
tr **943 74 45 82 (20:00-22:00)**

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak
ekartzeko azken eguna
asteazkena eguerdiko
13:30a da.

Etxebizitzak

• Pisua alokatuko nuke Deban.

72 615 70 91 77 "astegunetan
18:00etatik aurrera deitu. Astebu-
ruan egun osoan)

◆ Pisua erosiko nuke Eibar eta Deba ar-
tean. 30 milioitik beherakoa.
tr **615 70 91 77 "astegunetan**
18:00etatik aurrera deitu. Astebu-
ruan egun osoan)

◆ Etxea alokatuko nuke herriko edozein
kaletan. tr **615 78 92 44**

◆ Pisua salgai Deban. 3 gela, 2 komun.
n. **606 98 37 06**

• Pisua edo logela hartuko nuke alokai-
ruan. Mutil arduratsua.
1s 943 74 01 96 Karmelo
(11:00-15:00/17:00-23:00)

Garajeak

*Garaje marraduna alokairuan, Pedro
Muguruza 8an. ir **639 97 19 77**

• Garajea alokairuan, Pedro Muguruza
6an. tr **677 85 41 58**

*Marradun bi garaje salgai Karakol in-
guruan. cr **943 74 07 33 (Rosa.**
18:00 aurretik deitu)

*Garajea Leku Ederren. 3. solairuan,
sarrera onarekin. zr **660 79 53 01**

*Garajea salgai Pista Beltzean. Prezio
interesgarria. ir **607 76 17 42**

• Garajea alokatzen da Pedro Muguru-
zako garajejan. ir **943 74 06 05**

Salerosketak

◆ Opel Corsa salgai. Egoera onean.
72 625 70 80 42

◆ Renault Clio 16v. salgai. Grisa. BI-
BN tr **606 60 87 41**

†† Urkotronik markako goxoki makina
salgai. Urte eta erdi, tenperatura bi-
koitza. Merkea. a **655 71 29 59**

◆ Bi CD erreproduktore salgai.
72 943 74 26 21

◆ Reanult Clio 1.9 Diesel autoa salgai.
SS-BB. s **619 18 78 09**

◆ Aixan 400 autoa salgai. Gida bai-
menik gabeko autoa. Egoera onean.
tr **943 74 85 79/943 74 05 13**

◆ Lur saila salgai Elgoibarren.
15.000m² eta 15 urteko pinuarekin.
rr **943 03 35 03**

Bestelakoak

◆ Ikastolako forro polarra galdu due-
nak, pasa dadila Servicasa ferreteriatik.
Santa Ana, 28.

◆ Otsailaren 1 9an IMHko aldapan la-
ruzko agenda topatu zuenari, estima-
tuko nioke barruko paperak behinizat
Udaltzingoran utziko baliitu.

◆ Mini disk bat galdu nuen otsailaren
10ean, funda beltz batean. Norbaitek
aurkituko balu, deitu meseclez.
zr **943 74 88 64**

Lokalak

◆ Karabana gordetzeko lekua behar
da. Garajea, lokala, baserria...
z. **943 74 04 66/605 77 53 57**
(Inazio)

Partikularrak

◆ Enpresaritza ikasleak klase partikula-
rrak emango lituzke. tr **669 68 77**
05

• Frantsez klaseak ematen dira. Maila
guztiak, talde txikiak.
Yr **943 74 42 73**

◆ Unibertitate Lizentziatuak 2. DBH ar-
te klaseak ematen ditu. Euskaraz eta
erdaraz. Ingelesa ere. Klase indibidua-
lak. ja **943 74 09**
57/687 69 59 20 (Eli)

• Hezkuntza Bereziko Magisteritza ika-
si dut eta 3.ESO arte partikularrak
ematen ditut. Interesatuta egonez gero
deitu: tr **652 71 59 11**

◆ Ingelesko klase partikularrak ematen
ditut. Maila guztiak. Ingeles filologian
lizentziatua. 10 urteko esperientzia
daukat. rr **943 74 31 67 Nekane**

◆ Frantsezeko klase partikularrak ema-
ten dira Eibarren. tr **943 20 31 56**

Ordutegia:

Astelehen-ostiral: 17:00-20:00

Larunbata: 10:00-14:00

BEKAN

Arrantza Merkatua
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura
Ministerioak, arrantza eta
merkataturtzaren arloan tekniko
profesionalak hobetu eta hezteko 2 beka
eskaini ditu. Lizentziatu edo ingeniari
titulua eskatzen da. Epea: martxoak 4.

Euskara

Donostiako Udalak, Donostian
euskararen normalkuntzako proiektuen
sustapena areagotzeko xedez,
dirulaguntzak emango dizkie euskararen
erabilera bultzatzen duten jardueri:
euskararen transmisioa, euskararen
gizarte-erabilera edo hizkuntza aberastea.
Epea: martxoak 12.

JARDUNALDIAN

Rol jarduerak

ATLAS-ek 2003ko Topaketa Errunikoak
antolatu ditu. Topaketa hauek Erreterian
izango dira apirilaren 17tik 20ra. Rol
jarduerak eta partidak Erreteriariko Udala
Kiroldegian izango dira.

IKASTAROAK

Errealizazio zinematografikoa
Zinema eta Bideo Eskolak errealizazio
zinematografikoari buruzko ikastaro
praktikoa antolatu du. Dohaineko ikastaro
honetan, 35 mm-ko film labur
zinematografiko bat eta publizitate spot
bat egingo dira. Epea: martxoak 1.

LANA

Arkitektoa

Andoaingo Udala arkitekto lanpostu bat
betetzeko oposizio-lehiaketa antolatu du.
Goi mailako arkitekto titulua eta
euskarako 4. hizkuntza eskakizuna
beharrezkoak. Epea: martxoak 7.

Liburuzaina

Andoaingo Udala liburuzain lanpostu
bat betetzeko oposizio-lehiaketa antolatu
du. Bibliotekonomia eta dokumentazio
diplomatu titulua edo beste diplomatura
edo erdi mailako titulazio bat, eta
euskarako 3. hizkuntza eskakizuna
beharrezkoak. Epea: martxoak 6.
Gizarte laguntzailea eta ingurugiro
teknikaria

Urola Kostako Mankomunitateak, Gizarte
Laguntzaile bat eta Ingurugiro Teknikari
bat kontratatzeko oposizio-lehiaketa
antolatu du kanpaina humanitarioak
egiteko. Epea: martxoak 10.



• Zorionak prexioxa, urte bat gehiago eta inoiz baino ederrago. Muxu bat Ikerren eta ebekuen partez.



• Zorionak Ainhoa, hilaren 26an 5 urte bete zenituelako. Zuk eramango duzu igandean bataiatzera Nagore. Muxu bat aitatxo, amatxo eta Nagoreren partez.



• Zorionak Beñat, etxekoan partez.



• Azkenean zure eguna iritsi da, Mikel. Hatz potoloarekin agurtzen hasiko zara hemen-dik aurrera. Zorionak denon partez.



*Iker laister iritsiko danez zure eguna, zorionak eta muxu handi handi bat dandon partez. Majo majo jarraitu maitxia.



• Zorionak Natalia, gure printzesa. Ostegunean ospakizun ederra izango dugu zurekin. Familiakoan partez.



• Zorionak Eider Rodríguez, "printzesa", otsailaren 24an 8 urte bete zenituelako. Anaia Ion eta gurasoen partez.



• Zorionak Ane zure 9. urte-betetzeari. Jarraitu hain polita izaten, gure printzesa. Familiakoan, eta bereziki Maria, Irati eta Mikelen partez.



• Zorionak Andoniri, martxoaren 6an 7 urte beteko dituelako. Gurasoen, arreba Mariaren eta familiako guztien partez.



*Zorionak Iker, asteazkenean 5 urte handi beteko dituzulako. Familiakoan, Aitziren eta batez ere, Andoni txikiaren partez.



Zorionak Mikel eta ondo pasa inauteriak.



• Zorionak Alazneri, martxoaren 3an 10 urte beteko dituelako. Familiakoan partez, ondo pasa.



• Zorionak Alazne eta Joneri, martxoaren 3an 10 urte beteko dituztelako. Guraso, ahizpa Irune eta Lauraren partez.



• Zorionak Leire eta Anjel! Iritsi da zuek espero zenuten eguna. Odría sendi osoak eta etxekoek zorionsu izan zaitezte! opa dizuegu. "Aupa martxoak 1".



• Jose Miguel Martin eta bere familiakoan partez, zorionak Mekanosa dendako semeei, otsailaren 14an Enekok 5 urte egin zituelako eta 21ean Mariak 7.



• Igandean gure urtebetetzea ospatuko dugu, eta goratzen dut orain dela 5 urte zure gurasoek munduko oparirik ederrena egin zidatela: zure jaiotza! Zorionak Nerea, tia Arantzaren eta familiakoan partez.

**ATXUTXI
KARAOKEA**



martxoak 1 zapatua
PLAZA HANDIAN

**KARAOKEA
OPARIAK**

Th
abxubxiamalka

GAZ-T
AISIALDI TALDEA
fi C.018 11017.ARAA

LAGUNTZAILEAK
Elgoibarko Udaia • Gipuzkoako Foru aldundia Eusko JauriaUtza

28 BARIXAKUA

19:30 IBEREZIARTUA MUSIKA ESKOLAKO TALDE INSTRU- MENTALEN KONTZERTUA

Musika Eskolako auditorioan
Elgoibar Xiberoarekin auzolanean

22:30 ZINEMA ITSUA

Kultur Etxean
Antolatzailea: Sinuose kolektiboa

16:30 MOZORROEN ELKARTZEA

Plaza Handian

17:00 POTXIN ETA PATXIN PAILAZOAK

Plaza Handian (Eurria eginez gero
Kiroldegian)

18:00 SUZKO ZEZENA

Plaza Handian

18:00 DANTZALDIA

Gelatxo Orkestrarekin
Jubilatuen Biltokian
Ondoren, Mozorro Lehiaketa

18:30 MAUSITXA TXARANGAREN KALEJIRA

1 ZAPATUA

17:00 KARAOKEA ETA MOZORRO DESFILEA

Plaza Handian
Antolatzailea: AtxutxiamaiKa Aisialdi
Taldea

19:00 MAUSITXA TXARANGAREN KALEJIRA

22:00 IRATXO TALDEAREKIN DANTZALDIA

Plaza Handian
24:00 MOZORRO LEHIAKETA

Plaza Handian
Antolatzailea: Gurutze Gorriko Gazteak

6 EGUENA

21:30 HITZALDIA

Gaia: "Emakumea eta sexu fantasiak"
Hizlaria: Eli Moreno, sexologoa
Kultur Etxean

2 DOMEKIA

18:00 DANTZALDIA GELATXO ORKESTRAREKIN

Jubilatuen Biltokian

7 BARIXAKUA

22:15 ANTZERKIA

Antzezlan: "Se busca impotente para
convivir"

Taldea: Glu Glu Produksioak
Herriko Antzokuan
Antolatzailea: Kultura saila Haizea
E.T.rekin elkarlanean

19:00 KRISTINA MATASEN ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Argazkiak, serigrafia, litografia, akuarela
eta oleoa

Kultur Etxeko erakusketa gelan
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea
Martxoaren 23ra arte

4 MARTITZENA

15:00 KALEJIRA ETA DANTZA SAIOA

Ikastolako haurrak
Plaza Handian (eguraldi txarra eginez
gero, Ikastolako frontoian izango da)

**ZINE
kluba**



"Promises"

Zuzendaria: Justine Shapiro

Komunitate palestinarretan zehar egindako bidaiaren ondorioz garatutako dokumentala da. Bidaian ezagututako zazpi haur palestinar eta israeldarrak izango dira protagonistak eta beraien eskutik aurkeztuko zaigu bertan bizi duten gatazka. Haur bakoitzaren bizi baldintzak, ideologiak, testuinguruak errealitatearen mosaikoa islatuko luke. Kuriositateak, elkarrezagutza nahia bultzatuko du eta honek adiskidetasunaren promesa piztuko du. 1997an, 98an eta 2.000. urteetan grabatu zen, hau da, azken intifada hasi baino lehenago zegoen giro eta une lasaiagotan.

IKUSKIZUNAK

Atxutxikaraokea

Urtero legez Atxutxiamaikea eta GAZ-T aisialdi taldeek Atxutxikaraokea antolatu dute. Martxoaren lean, zapatuan izango da zita 17:00etatik 19:00etara Plaza Handian. Play-back-a, opariak eta karaokea izango dira. Play-back egin nahi duzuenok, Elgoibarko Izarrara eraman beharko duzue zinta aurrez.

Zinema Itsua

Sinuose Kolektiboaren eskutik "Zinema Itsua" izango da gaur 22:30ean Kultur Etxean. Itsuek zinema jasotzeko duten ikuspuntuan oinarritutako saioa izango da eta filmetako soinuak erabili dituzte material gisa artista elgoibartarrek. 55 minutuko iraupena izango du saioak eta doanekoa izango da.

Haritz Euskal Dantzari Taldea

Datorren abenduaren 28an, zapatuan, Elgoibarko Haritz Dantzari Taldeak, Korrika Kulturalaren barruan, Durangon egingo den ekitaldian parte hartuko du, Argia dantza taldearekin elkarlanean, "Pas de Basque" Juan Antonio Urbeltz koreografoaren azken lana aurkeztuko dute. Arratsaldeko 20:00etan izango da saioa, Durangon.

JAIK

Inauteriak Jubilatuen Biltokian

Jubilatuen Biltokiak antolatutako Mozorro Lehiaketa martxoaren 4an, martitzenean, izango da. Bertan hiru sari banatuko dira hiru mozorrorik onenen artean. Arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara bitartean Gelatxo orkestrak dantzaldia eskainiko du. Bestalde, martxoaren 12an, asteazkenean, mahai jokoen txapelketa izango da. Musa, tutea, briska, seikoak eta puntuan arituko dira partehartzaileak.

Emakume Langileen Eguna

Martxoaren 8an Emakume Langileen Eguna denez, Haizea Emakume Taldeak hainbat ekintza antolatu ditu Elgoibarko Udaletxea eta Emakunderen laguntzaz. Martxoaren 6an, ostegunean, "Emakumea eta fantasia sexualak" izeneko hitzaldia eskainiko du Eli Moreno sexologa elgoibartarrak Kultur Etxean. 21:00etan hasiko da saioa. Martxoaren 7an, barixakuan, berriz, Cristina Matas artistaren erakusketa inauguratuko da. Argazkiak, margoak, litografia, akuarelak eta serigrafia biltzen ditu erakusketak eta martxoaren 23ra arte izango da ikusgai Kultur Etxeari. Martxoaren 9an, domekan, berriz, herri bazkaria izango da Herri Gain jatetxean. Pitxintxu dendan eman daiteke izena.

IKASTAROAK

Oinarrizko buztin ikastaroa

Lurki Taldeak Udalaren laguntzaz antolatuta oinarrizko buztin ikastaroa izango da martxoaren 3tik apirilaren 3ra bitartean. Orduetegiari dagokionez, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara izango da astelehenetik ostegunera Lurkik Aita Agirre plazan, behea-ezk. duen egoitzan. Informazio gehiagorako edo izena emateko, 677 466 344 (Jose) telefonora deitu.

KONTZERTUAK

Talde instrumentalen kontzertua

Inazio Bereziartua Musika Eskolako Talde Instrumentalek kontzertua eskainiko dute gaur, otsailak 28, Musika Eskolako auditorioan. Elgoibar Xiberoarekin auzolanean ekimenaren barnean antolatutako saioa da eta arratsaldeko 19:30ean hasiko da. Guztira 13 talde izango dira.

KARTEI,DEGIA

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"Al limite de la verdad"

28, barixakua: 22:15

1, zapatua: 19:30-22:15

2, domekia: 19:30-22:15

3, astelehena: 22:15

"Promises" (Zine Kluba)

6, eguna: 22:15

EIBAR

"Mortadelo y Filemon"

28, barixakua: 19:30-22:15

1, zapatua: 17:00-19:30-22:30

2, domekia: 17:00-19:30-22:30

3, astelehena: 19:30-22:15

4, martitzena: 19:30-22:15

5, eguaztena: 19:30-22:15

"El jardin de la alegria"

28, barixakua: 19:30-22:15

1, zapatua: 17:00-19:30-22:15

2, domekia: 17:00-19:30-22:15

3, astelehena: 19:30-22:15

4, martitzena: 19:30

5, eguaztena: 19:30

BARRE:lek 4z du gerta lizekeen
aldaketen erantzukizunik



"Al limite de la verdad"

Zuzendaria: Roger Michell.

Antzezleak: Ben Affleck, Samuel L. Jackson, Toni Collette.

Gavin Banek (Ben Affleck) bere karreraren gorenera iristen ari den entzute handiko abokatua da. Auto ilara baten erruz epaitegira berandu iristeko arrisku handia du. Doyle Gipson (Samuel L. Jackson), berriz, bi semearen aita da eta auto ilara berdinean ez atzera ez aurrera geratuta dago. Doylek ere epaitegira joan beharra dauka, bertan erabakiko baitu epaileak semeak ikusteko eskubidea duen edo ez. Itxuraz zerikusi handirik ez duten bi gizon dira, baina garrantzi handirik gabeko istripu batek gorrotoak gizaki guztiok berdintzen gaituela erakutsiko digu.

N



A

ste honetako erretratu zaharra Jose Inazio Garagarzak laga digu. 1967. urteko otsaileko inauterietan ateratakoa da. Garai hartan ere bazen mozorrotzeko zaletasunilc, eta argazkian ikusten den bezala, elgoihartarrak umore handiz ateratzen ziren kalera. Koadrilen arteko afariak egin, eta juerga giroa izaten zen nagusi.

Argazkian ikusten dugun lagun koadrila hau, S.C. Gure Bide Elkartean bildu zen egun honetan. Gogora dezagun zein diren erretratuan ageri diren lagunak.


Ezkerretik eskumara: Alberto Andonegi, Inazio Izagirre, Urigoitia, Zubiaurre, Jose Anjel Riaño, Mari Cruz Urzelai, Begoña Astigarraga, Patxi Zabaleta (t), Jesus Mari Astigarraga, Jose Inazio Garagarza eta ezezaguna.

Behean makurtuta: Juan Mari Osoro.



ESKERTZA

2003ko otsailaren 13ean, 36 urte zituela hil zen
IOSU ARRIOLA AZPIAZUren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2003ko otsailaren 20an, 89 urte zituela hil zen
JOSE ARAMBERRI MUGURUZAren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



BASKO RENT

GARBIKETA. • NIAINTINIMINPUA . AUTOkKAIPKAIRUA....

MANTENDU EZAZU ZURE AUTOA GARBI eta PREST!




GARBIKETA AUTOMATIKO
PUBLIKOA



GARBIKETA
2,50 C

GARBIKETA LEHORKETA
ARGIZARIA EMATEA
3,50 C



ESKUZ EGINIKO
GARBIKETA

GARBIKETA
BEREZ¹A
4,50 C



HORREZ GAIN:

011oarEn Edo filtroEn aldakEta
PnEumatikoEn aztErketa Eta aldakEta
BalaztEn eta EsekidurarEn aztErkEta
MantEnimEndu orokorra

SIGMAKO INDUSTRIALDEAN GAUDE

7 eta 8 pabilioiak - Elgoibar

rt 902 103 287

se busca impatente para canvivir

NOP4REEDIA

Markxclarten 7an


Herrildlei Anticthian

22:1Etean

Carmen Canesa
Ana Frau
JesUs Cabrera
Miguel Faranda
Luis Ralla
Esther Uria
Ana Trinidad
Pedra Farera



g111,7glu
PP



SAREA